

ELGERA

**ANA LOPEZ
MENDIZABAL**

“Nire etorkizuna musika munduan ikusi dut”



- 3 Bilboko euskalgintza
- 4 Elkarrizketa
- 6 Inkesta
- 7 Normalkuntza
- 8 Erreportajea
- 10 Jarduerak
- 11 Literatura
- 12 Musika
- 13 Teknologia berriak
- 14 Ikuskizunak
- 15 Bitxikeriak
- 16 Agenda
- 17 Denborapasak

aurkibidea

ELGERA 3. zenb. maiatza 2013

- 18 Auzoak
- 20 Lanbide Heziketa
- 22 Kirola




Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Rekaldeberriko BHI, San Adriango BHI, Eskurtze BHI, Unamuno BHI, Botikazar BHI, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Salesianos Deusto HLBIP, La Salle HLBIP, San Inazio BHI ikastetxea eta B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa. Koordinazioa: B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa. Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 5.000. Webgunea: www.elgeraldizkaria.wordpress.com

Bilboaldeko aldizkariak: BERTON eta PREST!

Ibarrekolanda BHI - Garazi Calvo, Lide Zuazo eta Paule Zuazo

Jakingo duzueenez, orain dela gutxi Berton eta Prest! aldizkarien urteurrena izan da. Lehenengo honek, 15 urte bete ditu, eta bigarrenak, aldiz, 12. Bi aldizkari hauek gauza ugari dituzte komunean; hala nola, euskara sustatzeko eta auzoko berriei buruz informatzeko asmoa. Bien sorreraren aurretik, ez zegoen euskara hutsean idatzitako aldizkaririk Bilbo inguruan. Hori dela eta, Mahatserrian, hau da, Begoñaldean, Berton aldizkaria sortzeari ekin zioten bai euskarazko elkarteak, bai auzokideek. Hiru urte beranduago, deustuarrek mahatsorriek egindakoa eredu gisa harturik, Prest! martxan jarri zuten.

Proiektu hauek aurrera eramaitea nahiko latza izan da prozesu osoan, batez ere, krisialdia hasi zenetik. Diru-laguntzak gutxituz joan ziren, eta horrek eragin nabarmena izan zuen aldizkarian;



tamaina txikitu behar izan zen, Prest!-ek pare bat orri galdu zituen, diseinua erabat berritu behar izan zuten etab. Hala ere, formatu aldaketa horrek irakurleen arreta berpiztu zuen.

Berton aldizkaria

Proiektu hau Asapala Euskara Elkarteak bultzatu zuen 1998. urtean. Nahiz eta Euskaldunon Egunkaria existitu garai hartan, Bizkaia mailan apenas zegoen euskarazko idatzizko komunikabiderik. Hori dela eta, elkarte, auzokide, irakasle, kirolari eta laguntza emateko prest zeuden guztiak batu eta 0. aldizkaria argitaratu zuten. Lehena zenez, zuri-beltzean eta formatu nahiko handian kaleratu zuten. Aurretik aipatutako diru-laguntzak, ez zetozen Eusko Jaurlaritzatik eta Bizkaiko Foru Aldunditik bakarrik, baita kuota txiki bat ordaintzen zuten biztanle mordoaren poltsikotik ere.

bertonaldizkaria.wordpress.com

Prest! aldizkaria

Prest! aldizkaria 2001. urtean jarri zuten martxan deustuarrek, bereziki, Berbaizu Euskara Elkar-teak. Honen aurretik, Itzartu deituriko aldizkari bat zegoen. Hasiera batean, Deustualdeko gertakarietan zentratzen ziren idazleak. Gerrogo, tokikotasuna zabaldu eta deustuarrekin zerikusia zuten gai ugari jorratzea lortu zuten. Adibidez, elkarriketa baten bitartez azaldurik, atzerrian bizi den deustuar baten istorioa edota famatu bilakatu den auzokidearena. Gaur egun, internet bidez ere lan egiten dute. Horrek informazioa zabaltzeko aukera eman die. Eta ez hori bakarrik, aldizkarian sartzen ez diren berriak eta bat-bateko albisteak argitaratzeko aukera paregabea ere izan da.

prestaldizkaria.wordpress.com



“Nire etorkizuna musika munduan ikusten dut”

Botikazar BHI
Leire Benavente Murguialday

Ane Lopez Mendizabal, Botikazarreko ikaslea izateaz gain, Euskadiko Ikasleen Orkestrako (EIO) biolontxelo jolea da. Bere ahalegin eta sentimenduez hitz egin digu.



Nondik datorkizu musikarako zaletasuna?

Txiki-txikitatik gustatu izan zait musika eta gurasoek ere bere musikarako zaletasuna transmititu zidaten. Horrekin batera, musikak sortutako kultura ere nire kabuz elikatzen joan naiz.

Baina kontrabaxua ez da izan jo duzun tresna bakarra, ezta? Zer dela eta erabaki zenuen kontrabaxua jotzea?

Berez, txikitan trikia aukeratu nuen, hau baitzen gehien erakartzen ninduen musika-tresna; apurka-apurka konturatu nintzen instrumentu bat jotzearen esanahiaz eta horrek eragiten zizkidan sentsazio eta sentimenduez. Zazpi urterekin pianoa jotzen hasi nintzen ikastolan, baina ez nion trikia jotzeari utzi. Musikaz gero eta gehiago gozaten nuela sentitzen nuenez, eta piano irakaslearen aholkuari jarraituz, hamar urterekin kontserbatorioan sarbide probak egin nituen, baina pianorako plazarik ez zegoen, orduan kontrabaxua eta beste tresna batzuk jotzea eskaini zidaten eta nik baxua aukeratu nuen. Beraz, zazpi urte daramatzat 'lagun berezi' honekin.

Musika tresna jotzeak zerbait berezia eskatzen al dizu?

Bai, noski. Ikasketa paraleloak dira, hau ez da eskolaz kanpoko jarduera arrunta. Klaseetara joan behar, aurtan, adibidez, astean zazpi ordu klase dauzkate; Batxilergoko ikasketekin batera egin beharrekoak. Horretaz gain, etxean entseatu behar da musikatresnarekin. Gainera, nire etorkizuna musika munduan ikusten dut, Goi Mailako ikasketak egiteko asmoa daukat, serio hartu dut kontu hau. Oso gustura sentitzen naiz.

Noiz hasi zinen Euskadiko Ikasleen Orkestran? Zer da EIO zuretzako?

Lau urte daramatzat orkestran. Nire kontrabaxuko irakasleak (Jan Gajecki) nire ama deitu zuen, eta gaitasun berezi bat nuela esan zion. Orkestrako froga gairatzeko maila soberan nuela esan zion; irakasleak eta familiak (nire zalerik onenak) animatu ninduten eta nik ere ikusi nuen momentua. Proba gairatu ostean, kontrabaxu jole lez hasi nintzen. Zer den niretzat? Ba, EIO ez da musikatalde simple bat, EION sortzen den giroa be-

rezia da guztiontzako. Kontzertuek eragindako sentimenduak ez dira edozein sentimendu; ia-ia malkoa erortzen zaigu batzuei eta oiloipurdia eragiten digute batzuetan. EIOk benetan bete egiten nau. Entseguak oporretan eta asteburuetan egiten ditugu, aisialdian egiten den proiektua da, baina gustura egiten dugu, azken finean, boluntarioa da.



Nola sentitu zinen orkestran sartzean?

Kontrabaxua hartuta eta, hasieran, hurbiltasun handia sentitu gabe, orkestrak berak motibatu ninduen instrumentua ezagutzen eta honekin nire emozioak ere adierazten. Horrez gain, musikaz era berezi honetan gozaten duen jendea ezagutu dut urte hauetan eta nik bezala haiek ere emozioak transmititzen dituzte. Azken finean, musikak eragindako sentimenduak partekatzen ditugun talde bat gara, gure bizitzako parte bihurtu da.

Zelako esperientzia bizi izan duzu EION?

Entsegu eta kontzertu txikiez gain, 15 urterekin (2009-2010 kurtsoa) Venezuelara egindako bidaia hura izan zen lehena orkestrarekin. Bizipen hori ikaragarria izan zen, Karibeko irletan urteak betetzea eta gustuko dudana munduko beste pertsonekin partekatzea, benetan ikaragarria, Ameriketako pelikulen modukoa izan zen. Musikarengatik ozeanoa zeharkatzea, nire lehen bidaia eta hain urrun, ia sinestezina zen eta bertan orkestrako jendearekin neukan harremana ere estutu egin zen. Beste alde batetik, aurreko kurtsoan (2011-2012) Colombiara joan ginen, Latinoameriketara berriro ere, gure musika kulturaz bertako gazteak liluratzerara. Ikaragarritzko egunak pasa genituen eta jasotako txaloak ez ziren edonolakoak izan. Bietan ikasi genuen badaudela musika ikasteko beste modu batzuk, benetan izugarriak; horietako gazte askok musika erabiltzen dute etorkizun hobea eta duina lortzeko.



ASER - IKASLEA

Gogoratzen naizenean birziklatzen dut, baina ez dut beti egiten. Etxean bai, birziklatzen dut eta mendian ez dut hondakinik uzten lurrean botata. Kaletik noanean pipa azalak lurrera botatzen ditut, baina plastikozko poltsak paperontzira botatzen ditut beti.

ARITZ - IKASLEA

Eskolan ikasi dudana eta Institutuan ikasten ari naizena etxean praktikan jartzen dut eta etxekoei ere gogorarazten diet nola banatu behar den zarama. Etxetik kanpo ere ahalegin nahikoa egiten dut ez kutsatzeko.



IULIANA - IKASLEA

Materialak birziklatzeko egin behar diren gauza guztiak egiten ditut, papera bere lekuan, eta beste hondakin motak ere bakoitza bere lekuan. Lurrera hondakinik ez botatzen saiatzen naiz eta gauzak ondo egiten ditudala uste dut.

MIKEL - IKASLEA

Nik etxean beti ezagutu dut zarama banatzeko ohitura eta tapoiak ere gordetzen ditugu. Ikasitakoa aplikatzen dut eta etxean poltsa ezberdinetan sartzen ditugu kartoiak, beira, plastikoa eta abar.



JAVI - IKASLEA

Mendira goazenean, batez ere uda partean joaten gara, ez dugu ezer botata uzten, plastikozko poltsak eta bestelako material ez organikoak motxilan gordetzen ditugu hirira jaistean edukiontzian botatzeko. Etxean zarama poltsa ezberdinetan banatzen dugu.

ALAIN - IKASLEA

Ikastetxean ez dut tetrabrik, aluminiozko paperik ez halakorik botatzen lurrera eta kaletik noanean zakarra poltsikoan eramaten dut paperontzi bat ikusi arte eta berdín egiten dut hondartzan ere. Baina batek baino ez badu egiten, ez dugu ezer lortzen.



La Salle euskararekin bat

Gure ikastetxean argi daukagu zeinen garrantzitsua den euskararen erabile-
ra, horregatik, Hezkuntza Sailak, Ulibarri Programaren bitartez eskaintzen
digun laguntza ondo aprobetxatu nahi dugu.

Aspaldian ohartu ginen ez zela nahikoa euskara irakastearekin bakarrik. Lehenengo pausoeta-
riko bat ikastetxeko paisaia lin-
guistikoa euskalduntzea izan zen.
Honekin batera, gure barneko
komunikazio guztiak elebidunak
izatea bultzatu genuen. Posiblea
izan den neurrian, guztiok euska-
raz mintzatzeko aukera bideraga-
rri izan dadila ahalegindu gara.

Umeen artean euskara bultzatze-
ko zerbait erakargarri egin behar
genuela bagenekien. Hori dela
eta, badira urteak ikastetxean
maskota bat dugula, Matilde
balea, eta bere laguntzarekin
ekintza ugari egiten dugu euska-
raren erabilera sustatzeko.

Gure geletan ikasleak euskaraz
mintzaten animatzeko, Berbale
Sariak asmatu genituen. Hiruga-
rren eta laugarren mailan, adibi-
dez, euskaraz gehienetan komu-
nikatzen direnek puzzle baten
zati bat irabazten dute. Puzzlea

osatzten dutenean sari moduan
titulu bat ematen diegu.

Euskararen Nazioarteko Eguna
ere egun berezia da guretzat.
Abenduaren 3an, goizetik hasita,
megafoniatik eta ikastetxe osoan
Hasi etxetik eta kalera bezalako
abestiak abesten ditugu. Gero
ikuskitunaren bat antolatzen
dugu. Ikasleen adinaren arabera
antzerkia, txotxongiloak, magoa,
herri kirolak... Erakargarria den
edozer, hori bai, euskaraz egiten
dena. Klaseetan tailerrak anto-
latzen ditugu. Jai giroan ematen
dugu eguna, hori dela eta baserri-
tarrez jantzita ez datorrena zapia
lepoan etortzen da.

Irteerak antolatzen ditugunean,
euskaraz egiten diren ekintzak
aukeratzen saiatzen gara. Hauen
arte, kontzertu didaktikoak,
Miramonera bisitaldia, 5 urteko
ikasleek Areitz Soroa baserri es-
kolara egiten dute txangoa urtero,
bigarren mailakoek, berriz, Baratz

baserri eskola aukeratzen dute
eta seigarren mailakoek Zuatza
irlara joateko aukera dutenean ez
dute galtzen.

Gaur egungo gizartean, gutariko
askok argi dugu hizkuntzen eza-
gutzaren garrantzia. Kultur aniz-
tasuna gure gaurko gizartearen
ezaugarria da. Argi dago anizta-
sun horren barruan geuk ere zer-
bait esateko eta eskaintzeko dugu-
la, baina horrela izaten jarraitzeko
guztion ahalegina beharrezkoa
izango da. La Sallen badakigu
gure kultura zaindu eta errespe-
tatu behar dugula, horrela gai-
nontzeko kulturak eta hizkuntzak
errespetatzeko gai izango gara.

Beste herri batzuetatik etorri di-
ren ikasleak ere baditugu gure
arte. Hauek ere ahalegin han-
dia egiten dute euskara ikasteko
eta guk ahal dugun guztia egiten
dugu lehenbailehen ikas dezaten.

La Salle



Lübecketik Botikazar institutura

Hegazkinekin egundoko komeriak izan ostean, zazpi egunez izan genituen gure artean Alemaniatic etorritako 29 ikasle. Lübecketik heldutako gazte hauek irrikitan zeuden Botikazarreko lehenengo mailako ikasleekin ingelesa praktikatzeko. Bide batez, Bilbo eta Euskal Herria ezagutzeko beta ere izan zuten: Portugaleteko zubia, Bilboko Alde Zaharra, Guggenheim museoa eta beste hainbat toki.

Uda igaro ostean gu abiatuko gara haienera beste astebete elkarrekin egoteko eta oraingoan guk haien ohiturak, kultura eta parajea ezagutzeko parada izango dugu.

Jarraian bertako bi ikasleri (Sinah eta Saskia) guk geuk luzatutako galderak eta haien erantzunak.

Zer espero zenuten Bilboko hiriaz?

Sinah: Jende alaiz beteriko hiri eder eta moderno bat espero nuen. Hona iritsi nintzanean euria barra-barra ari zuen eta horrek apur bat tristetu ninduen, izan ere, hiriaren kokalekua jakinda eguraldi eguzkitsua topatzea espero nuen.

Saskia: Bilbori buruzko pelikula bat ikusi genuen, eta uste nuen euskaldunak ez zirela gutaz oso ezberdinak izango. Desberdin ikusi dudana, ohitura zaharrak oraindik mantentzen dituzuela, guk ez bezala.

Zein desberdintasun nabarmenduko zenuzke zure herrialdearekiko?

Sinah: Lehenik eta behin hemengo jendeak jaiak ikaragarri gogoko du eta badakite nola ondo pasatu. Bestetik, hemengo jendea hangoa baino atseginagoa da, eta noski, gure kultura guztiz desberdina da.

Saskia: Janaria, edaria, ohiturak...

Zein izan da hemen ikusi duzun gauzarik arraroena edo harrigarriena?

Sinah: Hemen ikusi dudana gauzarik harrigarriena Deustuko jaiak izan dira, izan ere, jende guztia ari zen etengabeko elkarriketan

eta abesten. Horrez gain, benetan arraroa iruditu zitzaidan nola mundu guztia zebilen alde batetik bestera coca cola eta ardoa zuen botila batekin.

Saskia: Gauzarik arraroena teleferikoa izan zen; baina orokorrean, uste dut hiri osoa harrigarria dela.

Zer izan da bidaiako gauzarik onena?

Sinah: Guggenheim museora egindako txangoa eta nire hemengo familiarekin igarotako asteburua. Hasteko, pintxo oso goxoak jatera eraman ninduten eta gero kotxez joan ginen Bermeo izeneko herri arrantzale txiki batera. Ikaragarri gustatu zitzaidan herririka hori.

Saskia: Beste herrialde bateko jendea ezagutzea eta haien hizkuntza entzutea.

Eta txarrena?

Sinah: Agur esan beharra. Izan ere, esperientzia ikaragarri ona izan da eta ez naiz gai ezer txarra aurkitzeko.

Saskia: Hegazkinekin izan genituen arazoak.

Zer uste duzu gure institutuari buruz? Eta bertako jendeari buruz?

Sinah: Badirudi apur bat tokitik kanpo dagoela eta uste dut esan zidatela itsasontzi edo arrain itxura zuela, ez naiz ondo oroitzen, baina barrutik edozein beste eskola bezalakoa dela uste dut. Horrez gain, irakasleak oso jatorrak dira eta noski ikasleak oso barrugarriak eta atseginak (behintzat ezagutu ditudanak).

Saskia: Eraikina nahiko berezia zen; jendea atsegina, baina guri begira egoten zen beti.



Irakurketa jarraia ikastetxeen arteko lankidetzan

Apirilaren 23an, Nazioarteko Liburu Egunean, 3, 4 eta Batxilergoko 1go mailetakoko 300 ikasle Unamuno Institutuko paraninfoan bildu ginen Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* liburuaren irakurketa ozena egiteko.

Ikastetxe partehartzaileak Calasancio, El Pilar, Pureza, San Adrian, Botikazar, Ibarrekolanda, Unamuno, Zorrotza eta Deustuko Ikastola izan ziren, ikastetxe bakoitza 30 ikaslerekin.

Jarduera hau Ulibarri Programa barruan antolatu genuen, ikastetxeen arteko lankidetzan, irakurketa, artea eta euskara uztartu asmoz. Egun seinalatua aitzakia zen liburuan agertzen den Artetaren koadroaren ibilbidea azaltzeko. 2005eko udaberrian, Kirmen hitzaldi bat ematera etorri zen, eta Alfonso XIII. erretratuarekin topo egin zuen ustekabeen. "Harribitxia" deitu zion, libururako egindako ikerketan galdutzat jotzen zuelako.

Hona hemen Joseba Zupiria eta Mikel Ruiz ikasleek emandako azalpena:



1927an Paraninfo honetan inaguratu zen institutu hau eta Alfonso XIII. erregearen izena jarri zitzaion. Eraikina Bastida arkitektoak egin zuen eta bere lagun Aurelio Arteta pintore ospetsuari enkargatu zion erregearen erretratua.

Dakizuenez, 1936an Gerra Zibila hasi zen eta esaten da, "gorriek" Alfonsoren erretratuari burua moztu ziotela. 1937an ikasturte berria hasi zenean, institutuko Torcal irakasleak klaustroari oparitu zion Francoren erretratua erregearena hankaz gora jarri eta gainean margotua.

1975an, Franco hil zen urtean, eraikinean erreforma handi bat egin zenetik, koadro hau alde batera utzi zuten eta zikinkeriaz bete zen. Koadroaren tamaina egiten zitzaien harri garria, eta horrexegatik, zorionez, garbitzaileari eskatu zioten fregona pasatzeko, eta orduan esaldi hau agertu zen: "Pintado sobre un cuadro de Alfonso XIII al que los rojos le cortaron la cabeza".

1998an Foru Aldundiak berriztatze lanak egin zituen, eta irudian ikusten den bezala, oihal zati berri bat itsatsi behar izan zioten burua margotzeko.

Kirmen Uribek hobeto kontatzen du altxor honen istorioa bere liburuan.

Booktrailerra ikusi ondoren irakurketa ahoz gora hasi zen. Lehenengo erreleboko hiru ikaslek hasiera eman zioten 1. atalari.


Deustuko ikastola

Nora ez dakizun hori

Idazlea: Irati Jimenez Uriarte

Argitaletxea: Elkar argitaletxea, 2009

Orrialde kopurua: 240



Bai irakurri!

Seguruenik, zuetako askok ez duzue Irati Jimenez idazlea ezagutzen, baina guk berarekin hitz egiteko aukera izan genuen, ikastolara etorri zenean.

Hainbat liburu idatzi ditu, baina guk haietako bat irakurtzeko parada izan dugu: Nora ez dakizun hori, hain zuzen ere. Edo-nork esango luke liburu oso bitxia dela, berak aitortu zigun bezala; hala ere, gehienoi gustatu zitzaigun, batez ere amaiera, dena argitzen den unea.

Hitzaldian, idazle bakoitzak bere idazteko moduak dituela azaldu zigun: musikarekin edo gabe, ordenagailuan edo paperean... Idaztea guk uste baino zailagoa dela adierazi zigun; bere ustetan, irudimena beharrezkoa da, eta guk gauza bera pentsatzen dugu.

Ane Yaldebere eta Ekhiñe Garaigordobil

Irati Jimenez idazlea



Ez irakurri!

Jon Azanza

Nire iritziz Nora ez dakizun hori liburu, ez da jasan erraza, atsegina... Hasteko, gaia ez da izan nire gustukoa, eta beste alde batetik, irakurtzeko ere ez da erraza izan; istorioa kontatzeko modua oso arrotza eta nekagarria da. Nekagarria, zeren eta atal batzuetan atzera bota behar nuen istorioan irakurritakoa gogoratzeke, honek liburuaren haria erraz galtzea ahalbidetzen du eta arrotza, gaur egun, horrelako gaiak gugandik urrun gelditzen direlako. Nik ez nuke gomendatuko inondik inora ere ez, eta gomendatzekotan beste zer edo zer irakurtzeko gehiago barik.

Euskal musika, kultura aldarrikatzeko bidea

San Inazio BHI

Musika gure kulturaren ohiko zatia da. Garrantzia ematen diogu musikari, gure nortasunaren puntu indartsua da. Historian zehar garrantzia izan du gazterientzat, batzuentzat abiapuntu izan delako, beste batzuentzat inspirazio iturri eta beste askorentzat borrokarako bidea. Guztiontzat askatasun iturri.

Euskarak jazarpen eta galera handiak jaso ditu bere historian zehar eta musika baliagarria izan da euskaraz beste harreman mota bat izateko gazteekin.

Gurean badaude zailtasun horiei aurre egin dieten talde aitzindariak. Aipagarriak dira *Ez Dok Amahiru* kultur taldea eta *Itoitz*. Hauek une hartan hain zapalduta zegoen euskal kultura suspertu eta berritu zuten. Halaber, badaude gaur egun gure kultura aldarrikatzen duten euskal taldeak, adibidez, Gatibu eta Betagarri.

Gatibu lau partaideko Gernikako rock taldea

da, 2002ko udan sortua, oso ezaguna eta estimatua euskal lurraldeetan.

Betagarri 1993an sortutako zortzi kideko taldea da. Bere lehen diskoa 1997an argitaratu eta *Betagarri* zuen izena.

Sare sozialak eta internet ere, azken urteotako aurrerapenen ondorioz, garrantzitsuak dira euskal musikarako: abeslarien lanak eta euskal gazteria ez dira atzera geldituko, haien partaideak baitira. Ezin dezakegu *youtube* plataforma ahaztu, euskal abeslari eta musika talde berriak ezagutzeko modu erraza eta merkea eskaintzen duena.



Arbel digitala

Salesianos Deusto
Odei Gomez, Lucia Guandalini, Ane Otero eta Naia Rengel

Arbel digitala ordenagailua eta proiektore digitalarekin konektatuta, periferiko bezala, oso tresna potentea bihurtzen da irakaskuntzan, ohiko arbelaren erabilera eta ICTren baliabide multimedia guztiarekin elkartzen direlako. (Eskola 2.0)

Gure ebaluazioa hauxe da:

ALDE ONAK

- Klaseak erakargarriagoak dira
- Irakasleak aldez aurretik prestatutakoa ekartzeko aukera du
- Zuzenketak egiten ditu programa desberdinak erabiliz
- Marrazki edota irudi desberdinak eskuz egin beharrean, internetetik har daitezke
- Bideoak ikus daitezke pantaila handian
- Arbelaren altuera egoki daiteke
- Internet erabiltzeko aukera zoragarria eskaintzen du (webguneak, jolasak...)
- Irakasleek ez dute eskua klarionekin zikintzen
- Letra politagoa ateratzen da (kolore eta idazkera desberdinak)
- Idatzitakoa gorde, azalpenak grabatu, inprimatu, berrerabili edota emailaz bidali ahal da
- Ikasleen powerpointak primeran ikusten dira

ALDE TXARRAK

- Kalibratu behar da
- Batzuetan soinuak zarata egiten du
- Argia badoa ez dabil
- Pizteak bere denbora darama



Errekaldeberri BHI - Batxilergoko 2. maila

Zinea eskolan: Irudi Biziak

Urteak dira Droga-mendekotasunaren prebentziorako programa abian jarri zela. Irudi Biziak Elkarteak antolatzen eta kudeatzen ditu EAEn zine emanaldiak, programan parte hartu nahi duten ikastetxeentzat.

Ikasturte baten lau film eman ohi dituzte, prozesu luze eta zaindu baten ondoren aukeratzen dira, beti ere duten mezuagatik, balio(ar)engatik eta, oro har, landu nahi diren eduki(ar)engatik. Izan ere, film bakoitza ikusi ondoren, hurbildu diren irakasleek oso didaktikoa den eta sakonki landuta dagoen koadernotxoa eskuratzen dute aipatu eduki horiek, gerora klasean, landu eta hausnar-keta egin ahal izateko.

Bilbon egiten diren emanaldiak, orain arte, Indautxuko plazako Karmen aretoan izan dira. Aurtengo ikasturtean, ostera, EHUK Abandoibarran duen egoitza berri bezain txukunera igaro dira.

Ikasleentzat emanaldiok biziki erakargarriak dira, zeren klaseko monotonía arintzeaz gain, ikastetxetik irteteak beti eskaintzen baitie pizgarri bat. Gainera film on, entretenigarri eta kalitatezkoa ikusteko bada, askoz hobe!

2012-13 ikasturteari dagokionez, hauexek dira aukeratutako filmak: *Haur Basatiak*, *Kilimanjaro*ko elurrak, *Bypass* eta *Ikutuezina*.

Oso luze ez egitearren, aipa dezagun *Bypass* filma. Orain gutxi estreinatu da areto komertzialetan arrakasta handiz; aktoreak, zuzendariak, gidoilaria, e.a. hemengoak dira, istorioa hunkigarria da... Hainbat arrazoi daude ikusi ez duenak ikus dezan.



BYPASS - Ikasleen iritziak

Keren Mateos: Itzel gustatzen zait filmari darion ironia, merezi du ikusteak, bai horixe!

Oihane Vazquez: "Vaya Semanita" sekulako eskola izan da hainbat aktorearentzat, film honetan hori garbi ikusten da.


Andrea Gutierrez: Entreenigarria, arina, istorio sinesgarria, gazteon problematika, amaiera ona... Zer gehiago eska daiteke?



Urta, urta, urta Media Markten euskara!


Euskara bitxian idatzitako hamaika kartel topatu ditugu han-hemenka. Barre apur bat egin nahi duzue besteen hanka-sartzeekin?

Aste Nagusian dardo ugari!



Entrevistas = Elkamizkitak

Ea ulertzen duzun Sidenorren iragarki hau



Giriarentzat muga



Erregistratutxatik baino lehen

Kanpoko umeentzako soilik



Ez hitzak jarri....zer?



REN anabasa

Kultur ekitaldiak

OLGETAN HAUR JAIA

Zer: jolasak, antzerkia...

Non: Kafe Antzokia

Noiz: igande arratsaldeetan



HAURRENTZAKO UDAKO TAILERRAK

Non: Guggenheim Bilbao

Adina: 3-6 eta 7-12 urte bitartekoentzat



MUSIKA ETA ANTZERKI ESKOLAK DATORREN IKASTURTERAKO

Nork: Kurkuluxetan Arte Eszenikoen Eskola

Non: Kafe Antzokia

Matrikulazio epea zabalik



POP-ROCK VILLA DE BILBAO LEHIAKETA

Noiz: apirilaren 15etik maiatzaren 31ra

Non: Bilborock-La Merced

Sarrera: doakoa

AMAREN ALABAK

Zer: literatura eta musika euskaraz

Noiz: ekainak 8

Non: Arriaga antzokia



KONTZERTUAK BILBON EKAINEAN

www.conciertos.com.es/bilbao.html

Alejandro Sanz: ekaina 1, Bilbao Arena

La Unión: ekainak 7, Rockstar

Pablo Alboran: ekainak 8, Bilbao Arena

Antonio Orozco: ekainak 9, Kafe Antzokia

Revolver: ekainak 13, Kafe Antzokia

Lucinda Williams: ekainak 15, Kafe Antzokia

Andrés Suárez: ekainak 20, Cotton Club

Wintersun: ekainak 24, Rockstar



IBILALDIA

Zer: Bizkaiko ikastolen jaia

Noiz: maiatzak 26

Non: Portugalete

MULTIABENTURA UDA HONETAN

Nork: Bilbao Kirolak

Zer: surf eta kayak-ikastaroak, kanoak...

IRALA auzoa

Eskurtze BHI

Iralabarri Bilboko auzoa da. Bilboko Errekaldeko barrutian kokaturik dago. 2006an, Bilboko Udalak emaniko datuen arabera, auzoak 11.696 biztanle zituen. Muga egiten du: hegoaldean Zabalako auzoarekin, mendebaldean A-8 autobidearekin, eta ekialdean Zabalburu eta Abandorekin.

Juan Jose Iralak eraiki zuen auzo hau.

Hasieran, gizon honek okindegi txiki bat zuen San Frantzisko kalean, oso ondo kokaturik. Ikusi zuenean erosle asko joaten zirela bere okindegira, negozioa sendotzea erabaki zuen, horretarako okindegi industrialara eraiki zuen beste leku hobe batean.

Hala, Vista Alegretik hurbil aurkitu zuen lekua, muino txiki baten gainean, Bilboko zabalgunearen eta trenbidearen ondoan (lehengaiak garraiatzeko leku ezin

egokiagoa, beraz). Ingurua ere oso aproposa zen langileentzako etxebizitzak ere eraikitzeko, lan-tegiaren ondo-ondoan.

Auzoa estilo ingelesean egin zuen, oso modernoa garai hartarako (XX. mendearen hasiera). Gainera, eraikuntza teknikak ere berriak izan ziren, modernotasunaren erakusgarri.

Edozein modutan ere, etxe mota asko daude: etxe zaharrak (Juan Jose Iralak eraikiak) eta berriagoak. Iralabarrin dauden etxeetatik, zaharrena, seguruenik,

1913koa da, eta etxe berrienak, berriz, gaur egunekoak.

Irala etxez beteta dagoen auzoa da, baina berdeguneak eta plazak ere badaude, adibidez: Eskurtzeko parkea.

Iralako biztanleei zerbitzu demente eskaintzen dizkie auzoak. Gure iritzian, Iralabarrak ez dauka denda asko, baina nahikoa, dituen biztanleentzako.

Hurbildu zaitezte! Giro ezin hobea izango duzue Iralan, zeresanik ez, Eskurtze Institutuan!





Goian estilo ingeleseko Iralako eraikin bat. Behean Eskurtze parkea.



Ikebana

Ikebana hitza entzuten baduzu, segur aski ez duzu jakingo zertaz ari garen. Lasai, ez zara bakarra, berdin gertatu zitzagun guri irakasleak Ikebana bat egitea proposatu zigunean. Zer den eta guk izandako esperientzia nolakoa izan den jakin nahi al duzu?



Ikebana arte japoniarra da, loreekin egindako artea, alegia. Txinako tradizio batetik dator, budistek Budari egindako lore eskaintzetatik. Hauek VI. mendean Japoniara heldu zirenean, arte hau jakinarazi zieten bertakoei. Baina, nolakoa da Ikebana? Loreekin egindako motibo apaingarria da, baita adar, hosto, fruitu eta haziekin ere. Asmo estetiko bat izateaz gain, gogoeta metodo bezala erabiltzen da, urtaroen fluxuarekin eta bizitzaren ziklo ezberdinekin lotuta dagoelako.

Behin jakinda zer den Ikebana, institutuan bizitako esperientzia kontatuko dugu. Lan hau egiteko bikoteak egin genituen eta lau bikote izan ziren lehenak Ikebana bana egiteko, atezaintzan, idazkaritzan, liburutegian eta irakasleen gelan jartzeko. Lore, hosto eta honelakoak erabili genituen, beti naturalak, gure lana egiteko. Behin Ikebana eginda, gustuko esaldi ezberdinen aukera egin eta loreontzietan kokatu genituen.

Egunero institutura datorren jendearen iritzia jakin nahi genuen eta horretarako atezaintzan eta idazkaritzan lan egiten dutenei galdetu genien zer nolako erantzuna zuen jendeak Ikebana ikusterakoan. Esan ziguten bai ikasleek, bai irakasleek ere aldatzen genuen

bakoitzean nabaritzen zutela. Liburutegian zegoen erlijio irakasleak, Albertok, esan zuen: "Oso inspiragarria da".

Ikebana egiteko posibilitatea izatea oso interresgarria eta aberasgarria izan da guretzat. Naturearekin harremanetan egoteko aukera izan dugu, binaka lan egiteko eta institutuko jendeari eta bertara hurbiltzen direnei gure emozioak eta desioak transmititu ahal izan dizkiegu honen bidez. Uste dugu, ez dela bakarrik institutua apaintzeko gauza bat, baizik eta zerbait gehiago da, poztasuna, alaitasuna, lasaitasuna, harmonia transmititzen du. Gomendatzen dizuegu!



Zergatik Merkataritzako

Erdi Mailako Zikloa?

Merkataritza munduarekin zerikusia duen zerbait ikasi nahi nuen: bezeroekin harremanak, antolakuntza, funtzionamendua, erosketak... beraz, Merkataritzako Erdi Mailako Zikloa aukeratu nuen. Argi neukan ez nituela ikasketa luzeak nahi, ez eta oso teoriko eta astunak.

Banekien, lagun batek esanda, Merkataritzako ziklo honetan gauza praktiko asko egingen zirela, edozein negoziotarako baliagarri zirenak. Animatu nintzen, eta arlo desberdin askotako jakintza jaso dut. Argazkietan ikusten duzuen bezala, ekintza ugari hartzen dugu parte.

Jarraian adieraziko dizkizuet modulu profesional ezberdinetan garatu ditugun zenbait ekintza (modulua guretzat irakasgaiaren sinonimoa da):

- Benetako kooperatiba bat sortu dugu, beste institutu batzuekin harremanetan, eta salmenta puntu bat sortu dugu kalean gure produktuak saltzeko.
- Erakusleihoak egin ditugu: diseinua, koloreak, argiaren eragina, kokapena, etab. kontuan hartuta.
- Biltegiarekin zerikusia duen guztia landu dugu: produktuen harrera, antolaketa, manipulazioa, erregistroa eta banaketa.
- Paketeriarekin zerikusia duen sinbologia ikasi dugu: apurkorra den; busti daitekeen; kutsagarria bada, non birziklatu behar den; berrerabilgarria den, etab.
- Kalitatearen kontzeptua negoziotan, eta horrekin batera, ditugun eskubide eta betebeharrak sektoreko hitzarmenaren arabera.
- Ingelesa.
- Eta noski, ordenagailuaren erabilera, biltegiaren kudeaketarako softwarea, gure negozioa interneten bidez zabaltzeko aukerak, salmenta puntuak... eta beste mila gauza.

Oraindik lehenengo mailan nago, pentsa ezazue, beraz, zenbat ikasiko dudan 2. maila bukatzen dudanerako! Eta gero ikusiko

dugu: nire kontura negozioa jarri, edo beste lan mota batzuk garatu.

Beno, irudiak azalduko dizute nik baino hobeto zein atsegina eta dibertigarria den Merkataritza zikloa. Eta ahaztu zait! Batzutan Kataluniatik datozen ikaskideei Bilboko erakusleihoak erakustera goaz kalera! Hori ere gure ikasketen parte da.



Xabier Perez: “Uretan egotea maite dut”

Ibarrekolanda BHI
Irati Fujimoto eta Iñigo Guemes

Xabier Perez, 17 urteko Ibarrekolandako 2. Batxilergoko ikaslea da eta aldi berean, Askartza waterpolo taldean dabil. Kirola da bere eguneroko bizitzan garrantzitsua baina ezin ditu ikasketak ahaztu.

Zer dela eta hasi zinen waterpoloan?

Betidanik igeriketan aritu naiz, eta gainera, uretan egotea maite dut. Orain dela lau urte eta erdi hasi nintzen waterpoloan.

Horretaz aparte, kirol gehiago egiten duzu?

Bai. Kirola egitea benetan gustatzen zait nire egunerokoan. Body board, skate eta horrelakoak praktikatzen ditut, baita korrika eta eskalada ere.

Dieta bereziren bat eraman behar duzu?

Egia esan, ez, baina nahiko aholkugarria dela uste dut. Karbohidrato eta proteinetan aberatsa den dieta egiten dut, baita ere ur asko edan eta noski, frutak eta barazkiak egunero jaten ditut. Egunero bost edo sei alditan jaten dut, 7.000 kaloria inguru egun osoan.

Bizkaiaz aparte, non lehiatzen zarete?

Taldea jubenila da eta 2. mailakoarekin Euskal Herri osoan jokaten dugu, baina talde nazionalean, lehenengo mailan dagoena, Espainia osotik zehar jokaten da.

Zergatik sartu zinen Batxiler Artistikoan?

Gehien bat, artea maite dudalako, bere forma eta egoera guztietan. Arte Ederrak ikasi nahi ditudalako ere.

Zelan daramatzazu ikasketak waterpoloarekin batera?

Nahiko gogorra da egia esanda, baina egin nahi ditudan gauzak dira. Disziplina pertsonalean oinarritutako jarrera da, denbora aprobetxatuz eta hainbat gauzei ezetz esanez, esan bezala, egin nahi ditudan gauzak dira, horregatik ez zait zaila egiten egunero entrenatzera joatea.

Bien artean erabaki beharko bazenu, zein izango litzateke zure aukera?

Waterpolo kirol minoritarioa izanda, oso zaila da profesionalki horretaz bakarrik bizitzea, horregatik ikasketak hartuko nituzke. Baina futbolarekin gertatzen den bezala izango balitz, segur aski, waterpolo hartuko nuke, hala ere, ez nioke Arte ikasteari utziko, benetan interesatzen zaidan zerbait baita.





Jon Azanza

Hamahiru urte leku berean
ikasten pasa ostean
orain gabiltza duda-mudatan
Batxilergoaren atean
mila erabaki hartu behar ta
ez gaituzte_uzten pakean
eta denbora nola pasa den
pentsatzen dugun bitartean
Haur Hezkuntzatik Institutura
pasa gara bapatean

2013 UDA VERANO

EGUNEKO UDALEKUAK COLONIAS DE DÍA

2001etik 2006ra arte jaiotakoentzat · Nacidas/os entre 2001-2006

Uztailaren 1etik abuztuaren 9ra
Del 1 de julio al 9 de agosto

UDAKO JOLASTOKIA

2007tik 2009ra arte jaiotakoentzat · Nacidas/os entre 2007-2009

Uztailaren 1etik 12ra
Del 1 al 12 de julio

EGUNEKO UDALEKUAK

2001etik 2006ra arte jaiotakoentzat

2013ko uztailaren 1etik abuztuaren 9ra

UDAKO JOLASTOKIA

2007tik 2009ra arte jaiotakoentzat

2013ko uztailaren 1etik 12ra

COLONIAS DE DÍA

Nacidas/os entre 2001-2006

Del 1 de julio al 9 de agosto de 2013

UDAKO JOLASTOKIA

Nacidas/os entre 2007-2009

Del 1 al 12 de julio de 2013

LIVING BILBAO!!!

Aurten, udako eskaintzaren edizioa inoiz baino bilbotarragoa izango da; eta horretan **Eguneko Udalekuak** eta **Udako Jolastokia** programak daude.

Parte hartzen duzuen umeok hirari beste modu batez begiratzea nahi dugu. Seguru orain arte ezagutzen ez zenituen lekuak deskubrituko dituzuela.

Animatu eta parte hartu! Zuen zain gaude!

LIVING BILBAO!!!

Este año os presentamos una nueva edición de los programas de verano, **Colonias de Día** y **Udako Jolastokia**, más bilbaína que nunca.

Queremos que las niñas y niños participantes miréis la ciudad de una forma diferente. Seguro que descubriréis lugares desconocidos.

¡Animaos a participar! ¡Os esperamos!

IZENA EMATEA:

- **Informazioa hartzeko, izena emateko eta matrikula egiteko lekuak:**
 - **Internetan:** www.bilbao.net
 - **Telefonoa:** Udalaren informazio-telefonoa 010 / 944 010 010 (astelehenetik domekara, 08:00-20:00).
 - **Norbera joanda:** "Bilbao Click" bulego elektronikoak, Otxarkoagako, Ibaiondoko, Deustuko, Begoñako, San Frantziskoko, Basurtuko, Zorrozkako, Errekaldeko, Castañoseko, Iralako, Uribarriko, San Ignazioko eta Abandoko udaltegien eta San Agustín eraikinean.
- **Aidez aurretik izena ematea: apirilaren 15etik 19ra.**
 - **Udako Jolastokia:** Ume bakoitzak leku batean baino ezingo du plaza eskatu.
 - **Udalekuak:** Ume bakoitzak hamabostaldi eta leku bakarra aukeratu beharko du.
- **Zozketa: apirilaren 24an.**
 - Zozketa izan eta hurrengo egunetik aurrera kontsulta daiteke emaitza informazio-lekuetan.
- **Izena ematea: apirilaren 26tik 30era.**
- **Itxaron zerrendan dauden pertsonen izen-ematea: maiatzaren 15etik 17ra.**
 - Kontsultatu fase honetan ea plazaik duzun informazio-lekuetan.
- **Bete gabeko plaza (bukatu arte): maiatzaren 30etik (9:00etatik aurrera) ekainaren 3ra.**
- **Ordainketa:**
 - Izena eman ondoren, laneguneko 48 ordu izango dira ordaintzeko.
 - Behin izena emanda, ordainagiriak "Bilbao Click" bulego elektronikoetan edo/eta Udalaren web orrian (www.bilbao.net) jasoko dira.
 - Dirua BBKn sartuko da, ordainagiria erabiltzaileak:
 - BBKn edozein bulegotan (kontsultatu ordainagiriak ordaintzeko ordutegiak BBKn bulegoetan).
 - BBKn Teleka kutxazainetan.
 - On-line, ordaintzen pasabidearen bidez, BBKn txartelean soilik.
 - Ez da beharrezkoa banketxeko ordainagiria Udalaren aurkeztea.

CÓMO INSCRIBIRSE:

- **Puntos de información y preinscripción / inscripción:**
 - **En internet:** www.bilbao.net
 - **Por teléfono:** Teléfono de Información municipal 010 / 944 010 010 (lunes a domingo 8:00-20:00h).
 - **En persona:** Oficinas electrónicas "Bilbao Click" en los Centros Municipales de Otxarkoaga, Ibaiondo, Deusto, Begoña, San Francisco, Basurto, Zorroza, Rekalde, Castaños, Irala, Uribarri, San Ignacio, Abando y Edificio San Agustín.
- **Preinscripción: del 15 al 19 de abril.**
 - **Udako Jolastokia:** Cada niña o niño deberá solicitar la plaza en un único centro.
 - **Colonias de día:** Cada niña o niño deberá elegir una sola quincena y un solo centro.
- **Sorteo: 24 de abril.**
 - Podrá consultarse el resultado a partir del siguiente día en los puntos de información.
- **Inscripción: 26 al 30 de abril.**
- **Inscripción de las personas en lista de espera: del 15 al 17 de mayo.**
 - Consulte si tiene plaza en esta fase en los puntos de información.
- **Plazas Vacantes (hasta agotar plazas): del 30 de mayo (desde las 9:00 horas) al 3 de junio.**
- **Abono:**
 - Tras la inscripción, el plazo para abonar el importe será de 48 horas laborables, una vez emitido el abonaré.
 - Los abonares se obtienen en las oficinas electrónicas "Bilbao Click" y/o en la página web municipal (www.bilbao.net) una vez hecha la inscripción.
 - Los ingresos se realizarán a través de la BBK, una vez obtenido el abonaré:
 - Acudiendo a cualquier sucursal de la BBK (consultar horarios de abono de recibos en las sucursales de la BBK).
 - A través de los cajeros Teleka de la BBK.
 - On-line, a través de la pasarela de pagos, solo con tarjetas BBK.
 - No es necesario entregar el abonaré bancario en el Ayuntamiento.